

Hizkuntz politiken arteko alderaketa (II)

J.Inazio Marko Juanikorena

Artikulu honen lehen zatian (BAT- Soziolinguistika Aldizkaria 11. zk.) Komunitate Autonomoko eta Catalunyako hizkuntz politika alorreko hiru dokumenturen -Euskararen Aholku Batzordearen 83koa eta 93koa eta Consell Social de la Llengua Catalanaren 93koa- laburpena egin eta bertako egitura, atal zein ideia nagusiak nabarmendu genituen. Artikuluaren bigarren atal honetan, berriz, konparaketaren balorazioak egiten saiatuko gara. Horretarako, artikuluaren ardatz bezala EAB-93 txostena hartu dugu, berau baita une honetan guri eragiten diguna. Esan bezala, beraz, txosten honen haria jarraitu dugu, geure artikulua ere txostenak dituen ataletan banatu dugularik. Horretaz gain, hasiera batean halako kontsiderazio orokorrak egin ditugu eta bukaeran ondorio batzuk ateratzen saiatu gara. Esan, sarrera hau amaitzeko, ez dugula txostena erabat «hustu», geuri interesgarrien iruditu zaizkigun puntuetara mugatu gara; txostenak badu hala ere, edukinari dagokionez, beste hainbat gai aztertzeak mereziko lukeena.

In the first part of this article (BAT- Soziolinguistika Aldizkaria No.11) there was a summary and a commentary of the main structure and ideas exposed in three papers -1983's and 1993's done by The Basque Government Advice Committee for the Basque Language (EAB), and 1993's by The Catalan Government Social Language Committee- on language policy in the Basque Country and in Catalunya. This second part attempts an assessment based on their comparison. To do this, we will take EAB-93's report, quite significant in our opinion, and we will follow the same chapter layout as in the report. Apart from this we include some general considerations in the beginning and some conclusions at the end. Finally, we would like to remark that this article is by no means exhaustive, we have concentrated in what we considered most interesting. However, the report does have some other points which would deserve further research.

«Logikaz, 93ko txostenak 83koan oinarritu beharko luke, orduan finkatutakoak egun zertan diren aztertu, eta guzti hori kontutan hartuz, datozen urteetako irizpideak finkatu»

«Kontutan hartuz Euskararen Aholku Batzardea erakunde instituzionala dela eta bere eginkizun nagusia hizkuntz plangintza alorrean Eusko Jaurlaritzari aholkua ematea dela, harrigarria iruditzen zaigu batez ere herritarrei zuzentzea eta ez Eusko Jaurlaritzari eta, are gehiago, atal honetan Jaurlaritza inondik ere ez aipatzea»

Irizpide orokorrak

1. Esan beharreko lehenengoa da Euskararen Aholku Batzardearen (EAB) 93ko txosten honek ez duela 83koa ezertarako kontutan hartzen, haren aipamen huts bat besterik ez baitu egiten.

Batzordea bera izanik, partaide ezberdinez osatua bada ere, eta zentzu bereko txostena egin badu -Euskararen Politikarako Oinarriak, 83an, eta Euskararen Politikarako Oinarri-zko Irizpideak, 93an- bien arteko lotura ikusi beharko litzateke; baina ez da horrela gertatzen. Logikaz, 93ko txostenak 83koan oinarritu beharko luke, orduan finkatutakoak egun zertan diren aztertu: helburuen betetze-maila, aurrerapenak, atzerapenak, testuinguru-aldaketa, ..., eta guzti hori kontutan hartuz, datozen urteetako irizpideak finkatu. Baina ez du halakorik egiten, 83koa izan ez balitz bezala jokatzeko du 93koak, zerotik hasi eta txosten erabat berria, erreferentziarik gabekoa, sortuz.

2. Bestetik, badirudi txostena, batez ere, herritarrei zuzentzen zaiela. Txostenaren lehen lerroak honela baitio: «Euskararen politikarako oinarriko irizpideak deritzan agiri hau, hizkuntz politikarako argibide eguneratuak **herritarrei aurkezteko E.A.B.k zabaltzen duen gogoeta-lana da**»¹. Eta «Agiria, norentzat?» izenburu daraman atalean ere agiri hau norentzat idatzia den adieraztean herritarrek aipatzen dituen lehen lehenik: «...EABk orrialde hauetan jaulki dituen ohar eta iradokizunak, gizartearen eta euskararen bizitzan erantzunkizun edo zerikusiren bat duten **herritarrei, eta elkarte eta erakundeei zuzenduak dira**»²Kontutan hartuz EAB erakunde instituzionala dela eta bere eginkizun nagusia hizkuntz plangintza alorrean Eusko Jaurlaritzari aholkua ematea dela³, harrigarria iruditzen zaigu batez ere herritarrei zuzentzea eta ez Eusko Jaurlaritzari eta, are gehiago, atal honetan Jaurlaritza inondik ere ez aipatzea.

Zentzu honetan, 83ko EABren txostena Jaurlaritzari begira mintzo da —«...Kriteriologia honek esan nahi duena hau da:

(1) Euskararen Aholku Batzardea: *Euskararen Politikarako Oinarriko Irizpideak*. Eusko Jaurlaritza, Aholku Bilduma. Gasteiz, 1993, 5. orr. Azpimarratua gurea da.

(2) Op.Cit., 5. orr. Beltzez dagoena gurea da.

(3) Abenduaren 15eko 370/87 Dekretua. Euskal Herriko Aldizkaria, 87ko abenduaren 21ekoa, 240. Zk.

hemen aipatzen diren kriterioak erabili behar lituzkeela Jaurlaritzak euskarari buruzko edozein ekintza erabakitzerakoan, ...»⁴,— eta Jaurlaritzak erantzuten du garai hartan Hezkuntza eta Kultura Sailburua zen Etxenikereren ahotik, EABk esandakoak bere eginez: «EABk hemen esandakoak Jaurlaritzak bere egin ditu eta eguneroko lanean betetzen saiatzen da...»⁵. Katalunyakoa kasuan ere, «Consell Social de la Llengua Catalana»ren txostena (CSLLC-93) instituzioei zuzentzen zaie lehen lehenik: «El Consell Social de la Llengua Catalana ha acordat participar en la iniciativa d'elaborar un Pla general de normalització lingüística, per impulsar les actuacions de les institucions i, també, de tota la societat catalana en el procés normalitzador del català»⁶.

Ondorioz, zenbait kezka sortu zaigu: honek zer esan nahi du, EAB-93k herritarrak Jaurlaritzaren aurretik jartzen dituela? Ala egungo Jaurlaritzan maila honetako konpromezuak onartuak izan daitezten jarrerarik ez duela ikusten eta horregatik, nolabait esateagatik, bere proposamenak sahiesbide batetik aurkezten dituela?

Aintzin-gogoeta

1. Agiria bera zertarako den azaltzean honako hau dio: «agiri honek irizpide horietan adostasun praktikoak lortzen lagundu nahiko luke, ahalik eta herritar gehienek, tarteko abiada eta epeak gorabehera eta azken helburu guztietan ez bada ere, danboraldi jakineko politika epekatu batean bederen norabide bera izan dezaten»⁷. Ongi, baina herritarren arteko adostasuna bultzatu nahi duela esaten du, eta ez du aipatzen gaur egun euskararen arloan desadostasun edo gatazka gordinenak herritar eta instituzioen artean gertatzen ari direla eta ez herritarren artean. Beraz, 1) dagoen gatazka historikoa ez du garbi azaltzen, 2) ez ditu instituzioak aipatzen, beraz, ezta ere bere ardura gatazka honetan, 3) esplizitoki aipatzen ez duen gatazka horren konponbidea eta ardura herritarrengana aldatu nahi du, eragile nagusia kanpoan

«Honek zer esan nahi du, EAB-93k herritarrak Jaurlaritzaren aurretik jartzen dituela? Ala egungo Jaurlaritzan maila honetako konpromezuak onartuak izan daitezten jarrerarik ez duela ikusten eta horregatik, nolabait esateagatik, bere proposamenak sahiesbide batetik aurkezten dituela?»

(4) Euskararen Aholku Batzordea: *Euskararen Politikarako Oinarriak*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1983, 23. orr.

(5) Op.Cit., 9. orr.

(6) Consell Social de la Llengua Catalana: *Pla general de normalització lingüística a Catalunya. Resum de la Proposta*. Barcelona 1993. 15. orr. Azpimarratua gurea da.

(7) Op. Cit., 6. orr.

«Nola izan daiteke gure garaian normalkuntzaren aldeko egitarau politikoek egon behar dutenik oraindik arrazoitu behar izatea?»

«Agian EAEko instituzioetako arduradunek ez dute euskararen normalizazioa eta bere aldeko hizkuntz politikaren beharra barneratu (ahoz bestelakorik azaldu arren), eta EAB halako azalpenak ematera beharturik aurkitzen da»

utziz.

Atal eta orri berean, parrafo bi aurrerago, oso gauza interesgarria esaten du txostenak, interesgarria eta txosten osoaren laburpentzat har daitekeena: «*ondoko hamarkadako hizkuntz politikak /.../ molde berrituak eskatuko ditu*». Horrekin erabat ados egonik, ez gaude inondik ere ondoren esaten duenarekin: «*besteak beste, agian, hizkuntz politikarekiko eztabaida eta interes soziala bizkortu egingo direlako*». Hau gauzak izkutatzea da, hizkuntz politikak molde berrituak behar ditu ez agian eztabaida eta interes soziala bizkortu egingo direlako —jadanik gaur egun interes soziala eta eztabaida horiek oso haundiak dira—, baina bai egungo hizkuntz politikak (instituzioen hizkuntz politika bakarraz hitzegin badezakegu, oso zalantzagarrria dena) gatazkan eta desartikulazioan murgildurik dagoelako eta, aurrera egin nahi badu, berritu beharra duelako. Hori EABk badaki, baina ez du aipatzen.

Hizkuntz normalkuntza: berorren aldeko zereginak

1. Txostenaren bigarren atal nagusi honek hizkuntz normalkuntzaz eta normalkuntzaren arrazoiez dihardu.

Edukinetan sartu gabe edo sartu aurretik esan beharra daukagu ez dugula ulertzen atal honen zergatia. Nola izan daiteke gure garaian normalkuntzaren aldeko egitarau politikoek egon behar dutenik oraindik arrazoitu behar izatea? Hizkuntz politika eta plangintza justifikatu behar izatea? Hizkuntza babesteko ofizialtasuna eta legedia direla tresnak azaldu behar izatea? Atal hau irakurtzean atzera egin dugula dirudi. Arrazonamendu mota hau instituzionalizatze prozesu baten hasieran eman daitekeena da, baina ez hizkuntz politika instituzionalak 15 urte bete ondoren. Urratsak aurrera eman behar dira eta ez atzera. Ez dugu, beraz, hau ulertzen.

Edo agian bai. Agian EAEko instituzioetako arduradunek ez dute euskararen normalizazioa eta bere aldeko hizkuntz politikaren beharra barneratu (ahoz bestelakorik azaldu arren), eta EAB halako azalpenak ematera beharturik aurkitzen da. Agian gai honetan hainbat politikoen ezaugarri nagusia bilakaera gaitasun eza da eta horretan datza, esate baterako, euskararen alorrean gatazkak iraun izatea.

Baina, atal honen zergatia hori bada, gauzak diren moduan azaldu behar lirateke. EABk horretarako buruzagi gaitasuna bereganatu behar zuen. Eta hori ez bada, atal hau atzerapausu baino ez da.

Hizkuntz politika

1. Atal honen hasieran txostenak dioenez, urteotan bizi izandako hizkuntz politikan lau jarrera politiko ageri dira: «1) *sustapenaren eta Euskararen Legearen aldekoa*, 2) *sustapenaren aldekoa eta Euskararen Legearen kontrakoa*, 3) *sustapenaren kontrakoa baina Euskararen Legearen aldekoa eta 4) sustapenari eta Legeari ezbaika erantzuten dietenena*»⁸. Jarrera hauen indar-harremanaren barruan burutuko omen da ondoko hamarkadako hizkuntz politikaren jarduera.

Iruditzen zaigu sailkapen hau erreduktionismoan jausten dela eta, berriro ere, gauzak ez direla bere osotasunean agertzen.

Hasteko, banaketa hau ez da hizkuntzaren beharretatik edo hizkuntz politikatik abiatzen, politika orokorrak hizkuntz alorrean dioenatik baizik. Ondorioz, eta azterketa politikoa egiten denez, abiapuntua ez da jada hizkuntzaren sustapena/ ez-sustapena, markoaren onarpena/ez-onarpena baizik. Eta zoritxarrez hori izan da instituzioen jokabide nagusia hizkuntzari buruzko politika egiterakoan, hau da politika orokorretik abiatu dira eta ez hizkuntzatik; horrek bere jokaera eta bestee-kiko jarrera baldintzatu duelarik. Instituzioetan eman diren jokabide eta alderdien arteko akordioetan, orokorrean, hizkuntz politikak ez du berezko protagonismorik ukan, akordio horiek ez dira inondik ere hizkuntz politikaren gain eraiki, eta bai, alderantziz, baldintzatu dute geroko hizkuntz politika. Interes politikoak ezarri dizkiote euskarari, euskararen interesak politikari ezarri beharrean.

Horren aurrean berriz, eta akatsak-akats, mugimendu sozialak asko aurreratu du hamar urte hauetan, euskararen sustapena erdigune duen hizkuntz politika bat diseinatu daitekeela frogatuz.

2. Hizkuntz politikaren helburuak zehazten ditu hurrengo atalean EAB-93 txostenak. Eta honetan bai, oso explizitoa da: elebitasuna azpimarratzen baitu indar osoz.

Badugu, baina, honen inguruan zenbait puntualizazio egiteko beharra. Hasteko, jakin badakigu zein eztabaidatua den elebitasunaren kontzeptua eta nolako jarrera kontrajarriak sortu izan dituen. Beraz, eta txosten honen asmoa baldin bada «*adostasun praktikoak lortzen laguntzea*» ez dugu uste elebitasunari buruz egiten diren baieztapen hauek asko laguntzen dutenik. Oztopoak baztertu egin behar ditugu, eta ez indar haundiagoz ipini.

«Instituzioetan eman diren jokabide eta alderdien arteko akordioetan, orokorrean, hizkuntz politikak ez du berezko protagonismorik ukan»

«Horren aurrean berriz, eta akatsak-akats, mugimendu sozialak asko aurreratu du hamar urte hauetan, euskararen sustapena erdigune duen hizkuntz politika bat diseinatu daitekeela frogatuz»

(8) Op.Cit., 9. orr.

«Gehienez, EAB-83k azaltzen zuen moduan, elebitasuna Estatutuak finkatzen duen bi hizkuntzen ofizialkidetasunetik ondoriozta daitekeen kontzeptualizazio bat izango da, kitto»

«CSLLC-93 txostenen helburuak finkatzean elebitasun/elebakartasun dikotomia eta elebitasunaren absurdoa ederki asko gaindi-tzen dute»

Bestetik, elebitasun hori «*Euskal Autonomi Elkarteak Euskal Herriari opa dioen helburua*»⁹ dela gehiegitxo esatea uste dugu. Gehienez, EAB-83k azaltzen zuen moduan, elebitasuna Estatutoak finkatzen duen bi hizkuntzen ofizialkidetasunetik ondoriozta daitekeen kontzeptualizazio bat izango da, kitto. Zentzu horretan, EAB-83 askoz garbiagoa (eta errealistagoa) zen: elebitasuna helburu gisa finkatzen zuen Estatutuak bi hizkuntzen ofizialtasuna agintzen duelako, baina elebitasuna kontzeptuaren irakurketa anitzak eta aniztasun horrek sortzen dituen arazoak azaldu ondoren.

Gainera, txostenak erabat nahasten ditu elebitasun mota edo kontzeptu ezberdinak. Oso gauza ezberdinak izan baitaitezke «*elebidunez osatutako gizartea*» edo «*hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko gai izango den herria*», «*gizartearen elebitasuna*» edo «*euskara eta erdara hiritar guztien mintzaira erabilgarri amankomuna*»¹⁰. Ez baita inondik ere gauza bera hizkuntza bat edo bestea mintzo diren hiritarren eskubideak bermatuko dituen gizarte antolaketa elebiduna ala euskara eta erdara hiritar guztien mintzaira erabilgarri amankomuna bihurtzea (azken hau aberrazio hutsa da: ez dago halakorik lortzerik, eta, kasu, guztiontzat bi hizkuntzak erabilgarri amankomunak bihurtuko balira, zertarako bi?, bat soberan legoke; eta, zalantzarik ez, estrukturaliki indartsuena dena inposatuko litzateke).

Azkenik, badugu zer ikasi katalanengandik. Guk dugunaren antzeko Estatutua eta Hizkuntz Legea dute beraiek, baina, garapenerako gaitasun haundia erakutsiz, CSLLC-93 txostenen helburuak finkatzean elebitasun/elebakartasun dikotomia eta elebitasunaren absurdoa ederki asko gainditzen dute («markoa» eta «demokrazia» inondik ere zalantzan jarri gabe) helburu gisa finkatzen dutenean katalanera instituzioen erabilpen-hizkuntza bihurtzea eta hiritar guztien eskubideak bermatzea, kataluniar hizkuntz komunitateak lurraldeko berezko hizkuntzarekiko duen eskubide kolektiboa urratu gabe. Horrela dio:

«1.- *Que la llengua pròpia de Catalunya sigui habitualment usada per les institucions públiques i privades en tots els usos públics i s'hi desenvolupi, en condicions de no subordinació, tota l'activitat.*

(9) Op.Cit. 10. orr.

(10) Op.Cit., 10. orr.

2.- *Que siguin plenament respectats els drets lingüístics de cada ciutadà de Catalunya pel que fa al desenvolupament de totes les activitats públiques, professionals, culturals, socials o de lleure, sabent que els poders públics protegeixem o emparen l'exercici d'aquests drets, sense conculcar el dret col·lectiu de la comunitat lingüística catalana a la llengua pròpia del territori*¹¹.

3. Hizkuntz politikaren bitartekoak bere ustez zeintzu diren adierazten du EAB-93k hurrengo atalean. Esango genuke agiriaren atal hau garrantzitsuenetakoa dela eta bertatik hiru ideia azpimarratu nahi ditugu.

Bat. «...lege horren ondorioz (Euskararen Legea), dagoeneko indarrean dauden hizkuntz erakunde politikoak eta akademikoa dira hurrengo lanabesa; eta, EAEn, berezikiago, 'Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politikaren artikulazio eta jarraipenaren ardura duen' Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia; hain zuzen ere, 'EAEko gainontzeko Herri Administrazioek esaniko gaiaren inguruan duten ekintza irizpideen' artikulazioa ere bateratu behar duen organoa»¹². Hau da, zoritxarrez txostena HPINk administrazioko hizkuntz politika artikulatu eta bideratzen duen eginkizuna gogorarazi eta berau indartu beharrean aurkitzen da; eta ez euskararen alde diharduten herri mugimenduen aurrean, administrazioko arduradun politikoek aurrean baizik. Ez baitago egun hizkuntz politika artikulatu bat, ezta hizkuntz politika ofizial bakarra. Taifen erreinua dirudien honetan instituzio-atal edo buru bakoitzak berea egiten du hizkuntzari dagokionez. Horregatik, eta gezurra dirudi horrenbeste urte pasa ondoren oraindik horrela ibiltzea, EAB-93k HPINren funtzioak berriro paperera ekarri behar izan ditu.

Esan behar, bestalde, eginkizun horiekin ados gaudela. Egun ez daukan liderazgoa eskuratu behar du HPINk edo antzeko organu batek. Edozein hizkuntz berreskurapen prozesuk hizkuntz politika instituzional artikulatu eta bakarra (nahiz eta mailakatua) behar baitu, eta, gure kasuan, ez bakarrik EAEko instituzioen artekoa, Euskal Herri osoko instituzioen artekoa baizik.

Bi. «...bada guztiz oinarrizkoa den beste bitarteko bat:

«Zoritxarrez txostena Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak administrazioko hizkuntz politika artikulatzen eta bideratzen duen eginkizuna gogorarazi eta berau indartu beharrean aurkitzen da»

«Taifen erreinua dirudien honetan instituzio-atal edo buru bakoitzak berea egiten du hizkuntzari dagokionez»

(11) Beltzez dagoena gurea da.

(12) Op.Cit. 12. orr.

«Instituzioek hizkuntzaren inguruan erakundetu eta hizkuntz politika artikulatua bideratu behar duten bezala, gizarteak ere erakundetu, artikulatu eta bere inizatiba propioak bideratu behar ditu»

«Herritar guztien adostasuna galdetu gabe zerga berriak demokratikoki ezartzen diren bezala, hizkuntz politika aurrerakoi eta koherentea ere bidera daiteke»

gizartetik bertatik datorren indarra. Izan ere, herri-administratioetan errotutako erakundeez gain, oso aintzat hartzekoak dira gizarte-bizitzan euskaingintzan diharduten elkarte eta taldeak. Hauen lankidetzarik eta lanik gabe ezinezko izango zaio normalkuntzari helbururaino iristea»¹³. Poztekoa da benetan herri erakundeetatik betidanik aldarrikatu duguna bere egitea organu instituzional honek. Hala baita, instituzioek hizkuntzaren inguruan erakundetu eta hizkuntz politika artikulatua bideratu behar duten bezala, gizarteak ere erakundetu, artikulatu eta bere inizatiba propioak bideratu behar ditu. Biak elkarrekin, menpekotasunik gabe.

Hiru. «Ahalik eta irekitasun zabalenaekin bilatu behar da hiritarren adostasuna; batasun osoa lortzerik ez den kasuetarako, ordea, sistema politikoak baditu adostasuna eragin eta lortzeko berezko eta ohizko bideak, eta hizkuntz politikak etenaldi alferrik izan ez dezan, erabili behar dira»¹⁴. Erabat ados esaldi honek azaltzen duen ideiarekin. Konpleju gehiegi dugu hizkuntz politikaren inguruan, eta bada hauek gainditzeko garaia. Uler dezagun behingoz, esate baterako herritar guztien adostasuna galdetu gabe zerga berriak demokratikoki ezartzen diren bezala, hizkuntz politika aurrerakoi eta koherente bat ere bidera daitekeela, inoren «sentsibilitate» arina mindu dugun begiratzera aldioro gelditu behar izan gabe.

Baina, horretarako gorago esandakoak behar ditugu: hizkuntz politika instituzionala artikulatua, instituzioetan zuzendaritza bakarra, herri mugimendua artikulatua eta indartsua eta konplejuen gainditzea, gehi, instituzioen ardura duten alderdien aldetik hizkuntz politika bideratzeko borondate eta erabaki politikoa eta ez hizkuntzarekin politika egiteko asmo politikoa.

4. Hurrengo atalean, hizkuntz politikaren aurrerantzeko ezaugarriak adieraztean, aurreko atalean esandakoak gartzten ditu txostenak.

Batetik hizkuntz politikaren plangintza egin behar dela dio, eta ez dela «gaurgero aski azken muturreko helburu nagusi orokorra bakarrik aipatzea; prozesu programatu batean, birtarteko helburuak egutegi batean mailakatuta jarri beharra dago»¹⁵. Ados. Baina, noizko plangintza hori? 15 urte igaro

(13) Op.Cit. 12. orr.

(14) Op.Cit. 13. orr.

(15) Op.Cit. 13. orr

dira eta urte guzti horietan herri erakundeetatik plangintzaren beharra aldarrikatu, egiteko eskatu eta laguntza eskaini egin da, eta oraindik ez dago ezer. Badugu honetan ere katalanen-gandik zer ikasi, iritsi baitira CSLLC-93 txostenean plangintza orokorra diseinatzeraz.

Bestetik, erakundeen eta gizartearen arteko elkarlanean burutu beharreko eginkizuna dela normalkuntza eta «*azken urteotan ikusi diren gatazkak eta elkartuezinak gainditu beharra dagoela*»¹⁶. Geuk, esaldi hori zuzenduz, gehiago esango genuke historikoak diren gatazka horiei buruz azken urte hauetan elkarlanaren diskurtsoa zabaltzen ari dela. Poztekoa da, hala ere, gobernuaren erakunde ofizial batek neurri honetako dokumentu batetan idatzirik agertzea; baina, eta hau horrela idatzita agertzea ere oso positiboa da, gerorako dioenarekin lotzen dugu: «*lankidetzaz honetarako lehen pausoa erakundeek eman behar dute eta, beren hizkuntz politika ezbaian jartzeko bildurrik gabe, adostasuna bilatu*»¹⁷. Izan bitez aholku hauek aintzakotzat hartuak!

Horrezaz gain, hiru administrazioen arteko nola administrazio-maila ezberdinen hizkuntz politika bateratu beharra aldarrikatzen du, lehen aipatu dugun bidetik. Eta, azkenik, hizkuntz politika irekia, malgua eta tokian tokiko beharrei egokitu defendatzen du aurrerantzerako.

Bilakaera eta balioespena plangintzaren abiapuntu

1. Hiru azpiataletan banaturik dagoen atal honetan txostenak egoeraren azalpen kronologikoa egiten du: lehenik, azken urteotako bilakaera azalduz, gero egungo abiapuntuari balioespen-oharra eginez eta, ezkenik, hurrengo urteetako hizkuntz plangintzaren nondik norakoa adieraziz.

2. Azken urteotako bilakaerari dagokionez, uste dugu arinegi igarotzen duela txostenak; zenbait zertzelada baino ez baitu egiten, eta horiek lorpen positiboak dagokienez, besterik ez. Ez deritzogu honi aski. Gorago esan dugun bezala, etorkizunaren ardatzak finkatzeko orain arteko helburuen betetze-maila, aurrerapenak, atzerapenak, testuinguru-aldaketak etabar ongi aztertu behar ditugu. Eta horren falta nabaritzen dugu txosten honetan.

3. Egungo abiapuntuaren balioespen-oharrei dagokionez, honetan ere ez da gehiegi luzatzen. Hala ere, egun

«Historikoak diren gatazka horiei buruz azken urte hauetan elkarlanaren diskurtsoa zabaltzen ari da»

«Etorkizunaren ardatzak finkatzeko orain arteko helburuen betetze-maila, aurrerapenak, atzerapenak, testuinguru-aldaketak etabar ongi aztertu behar ditugu»

(16) Op.Cit. 14. orr.

(17) Op.Cit. 15. orr.

«Legea aldatu edo garatu behar zela aipatzeak erreakzio garratzak sortu izan ohi ditu hainbat inguruetan. Horregatik, eta objetiboki hainbat legek euskararen normalkuntza oztopatzen duena ikusirik, interesgarria da lege garapen berriak (hau da, lege aldaketak) beharko direla txosten honetan idatzirik ikustea»

dugun hainbat arazo garrantzitsuren bilketa egiten du. Esatebaterako:

- «Hizkuntz normalkuntzaren asmoa, itxura guztiz, ez da oraindik Euskal Herriko gizarte osoarena, **ezta erakunde guztiena ere** /../ Maizegi, agintari batzuen, 'euskaltzaleen' edo 'horretan dabiltzanen' egiteko bezala ikusten da.

- Hizkuntzaren eskaintza 'sustatua', sarritan itxurazkoa bakarrik ari da gertatzen, zinezko erabilera praktikotik urrunegia.

- Plangintza gero eta orokorrago baten beharra nabaria gertatzen ari da.¹⁸

- Herri-administrazioetan hizkuntzaren baliabideak sobera sakabanaturik ageri dira gehienetan.

- Gero eta nabariago da /../ guztion koordinatzea nola egin litekeen galdera.

- Baliabideen sakabanaketa larria den arren, are larriago da hainbat erakundetan nabari den euskararekiko axola eza /../ hizkuntz utzikeria horren ondorioak larriagoak izango dira, batez ere, pertsonaren bizi-hobekuntzara zuzendurik dauden zerbitzuetan (Justizian, Herrizaingoan, Osasunerakundeetan, etab.).¹⁹

- Erakundeen hizkuntz politikaren premia eta gidaritza politiko orokorra batere gutxietsi gabe, ondoko urteetan hizkuntzaren normalkuntzan gizarte-indarrek gero eta eragin biziagoa izan beharko dutela dirudi.

- Jakinek zenbait alorretan /../ euskara erdaren menpe agertzen da, itzulpenetara behartua».²⁰

4. Hurrengo urteotako hizkuntz plangintzari dagokionez, atal oso hau jadanik lehendik txostenean agertu den ideia pare baten inguruan biltzen dela esango genuke:

- «Eremu guztietako politikagintza bideratzen duten erakundeek hizkuntz politika nola eraman ere aztertu beharko dute, horretarako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari dagokion buruzagitza aitortu eta indartuz.

(18) Op.Cit. 16. orr. Beltzez daudenak gureak dira.

(19) Op.Cit. 17. orr.

(20) Op.Cit. 18. orr.

- *Erakundeen eta gizarte-ekimenen arteko gatazkak arindu eta konpontzeko behar larria dago./../adostasunerako jarrerak bultzatuz eta aurkakeriaren kultura gaindituz».²¹*

Bi ikuspuntu horiekin, lehen esan bezala, ados gaude. Ados, baita ere, gerora aipatzen den lege garapenari buruzkoarekin: «*Plangintza betetzeko, premiazkoak izango dira lege-garapen berriak./../Legegintzan egindako lanaren handia aitorturik ere, aipatutako behar hori hurrengo hamarkadan nabaria izango dela dirudi*»²². Legea aldatu edo garatu behar zela aipatzeak erreakzio garratzak sortu izan ohi ditu hainbat inguruetan. Horregatik, eta objetiboki hainbat legek euskararen normalkuntza oztopatzen duena ikusirik, interesgarria da lege garapen berriak (hau da, lege aldaketak) beharko direla txosten honetan idatzirik ikustea.

Gure adostasuna biltzen ez duena beste honako adierazpen hau da: «*hizkuntzaren aldeko politika beharrezkoa den bezala, aitzitik, onartezina dela hizkuntz politikaren menpean, alderdikarien morrontzapean, jartzea. Euskararen normalkuntzak alderdien arteko tirabirak gainditzea eta euskararen aldeko elkarguneak sendotzen ahalegintzea eskatzen die elkarte, talde eta herritar guztiei*»²³. Hau ez da serioa. Gatazka partidistaren ondorioak leku guztietan nozitu dira, baina, alderdikarien morrontzapean inor jausi bada, batez ere, instituzioetatik bideratu diren hizkuntzarekiko politikak izan dira, eta, hurrunago joan gabe, horren froga dugu Jauriaritzaren Sail bakoitzak berea egin izana, arduradun politiko bakoitzaren arabera. Beraz, ez dezagun alderdikeria elkarte eta taldeei leporatzen jarraitu, «*adostasun praktikoak*» lortu nahi baditugu behintzat, eta bai deihadar hori arduradun politikoei zuzendu.

Hizkuntz normalkuntza alorrez alor

1. Azkenurrekoa den atal honetan, bere ustez normalkuntzarako zeintzuk diren landu beharreko lehentasunak adierazten dizkigu EAB-93k eta, ondoren, beste hainbat alor (irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, komunikabideak, herri administrazioa, lan-mundua, kultur baliapideak, erlijioa eta hizkuntza batua) aztertzen du. Ez dugu guk hemen alor guzti horien azterketarik egingo —interesgarria izanik ere

«Gatazka partidistaren ondorioak leku guztietan nozitu dira, baina, alderdikarien morrontzapean inor jausi bada, batez ere, instituzioetatik bideratu diren hizkuntzarekiko politikak izan dira»

«EAB-93k datozen urteotako hizkuntz politikarako lehentasunezko ardatz gisa funtzio ez-formalen esparruan kokatzen diren alorrak aukeratzten ditu»

(21) Op.Cit. 19. orr.

(22) Op.Cit. 20. orr. Beltzez daudenak gureak dira.

(23) Op.Cit. 19. orr.

luze jo dezake eta beste batetarako utziko dugu— eta lehen-tasunen azpiatalera mugatuko gara.

2. Hizkuntz normalkuntzarako lehen-tasun gisa honako hauek finkatzen ditu txostenak: **transmisioa**, **senitartea** eta **gazteria**: «*Familia da transmisiorako oinarri-oinarrizko lehen gunea, beronek bermatzen baitu hizkuntzaren jarraipena belaunez belaun. Sendiaren euskalduntasunik gabe, beste transmisio lagungarriak (eskola, komunikabideak, administrazioa, etab.) beti hutsetik abiatu beharko luketen makinak izango lirateke. /../ Berehala eta etorkizunerako duen garrantzia handiagatik, hizkuntz transmisioaren bideak ardura guztiz zaindu behar dira, bai berezkoak (familiar-tea, lagunarte hurbila, etab.), bai berariaz antolatuak. Lehen-tasunik behinena emango zaie transmisio-bide hauei plangintza orokorrean /../ Lehen-tasun osoa behar du, transmisioarekin batera, ohizko erabileremu arruntak segurtatzeak: hizkuntzaren egunerokotasuna eta ohizko segida da euskararen bizi-iraupenerako berririk seguruena. /../ Famili transmisioak sortutako iturri horretatik datorren gazteria da ondorengo belaunaldirako katebegia. Berez den suharragatik eta geroaren funtsa bera delako, gazteriariz zorzaio, hiztunen artean, lehen-tasunik handiena hizkuntz normalkuntzan»²⁴.*

«*Transmisioa eta senitartea garrantzitsuak izan arren hizkuntzaren iraupenerako, ez dugu uste horiek direnik hizkuntzaren normalkuntzaren ardatza. Soziolinguistikaren adituek hizkuntzaren berreskurapenerako beti jarri izan dituzte funtzio formalak ez-formalen gainetik»*

Horren arabera, EAB-93k datozen urteotako hizkuntz politikarako lehen-tasunezko ardatz gisa funtzio ez-formalen esparruan kokatzen diren alorrak aukeratzen ditu (gazteria ezin dugu funtzio gisa definitu, giza-sektore bezala baizik; hala ere gazteria ere transmisioaren inguruan egituratzen du). Hau, EAB-83 txostenarekin alderatzen badugu, aldaketa handia ematea da, orduan lehen-tasun estrategikotzat **irakaskuntza**, **kunikabideak** eta **administrazioa** finkatu baitziren; hau da, hizkuntz plangintzaren teorizazioetan funtzio formal gisa definituak izan direnak. Alde handia ere Katalunyako aukeraketarekin, CSLC-93 txostenaren lehen-tasunak **sozio-ekonomia** eta **haurrak eta gazteria** baitira.

Zaila egiten zaigu EAB-93k proposatzen duen aldaketa ulertzea. Transmisioa eta senitartea garrantzitsuak izan arren hizkuntzaren **iraupenerako**, ez dugu uste horiek direnik hizkuntzaren **normalkuntzaren ardatza**. Soziolinguistikaren adituek hizkuntzaren berreskurapenerako beti jarri izan dituzte funtzio formalak ez-formalen gainetik. Beraz, 83an funtzio formalak proposatzea eta 93an ez-formalak atzerapausu izugarria dela uste dugu. Are gehiago beste inolako azalpen edo erreferentziarik ez dagoenean.

(24) Op.Cit. 21 eta 22 orr.

Historikoki hizkuntz funtzio formal nagusiak erdaraz izan arren euskara gureganaino iritsi bada, funtzio ez formalen bidez euskara transmititu delako izan da. Beraz, eta transmisioaren arlo honetan hutsuneak baldin baditugu ere, euskarekin aurrera egin nahi badugu (aurrerapausoak eman, normalizatu), orain funtzio formalak eskuratzeari eman beharko diogu lehentasuna. Agian, orain EAB-93k egiten duen planteamenduak lekua eduki zezakeen hizkuntz politika instituzionalaren hasieran (pausu berriak eman aurretik zegoena ziurtatu eta gero esparru berriei ekin). Baina, garai hauetan eta EAB-83 txostenak jasotzen zuena kontutan hartuz, berriro diogu, atzera egitea da EAB-93 txostenak proposatzen dituen lehentasunak finkatzea. Ikas dezagun kataluniarrengandik: haiek aurrera egiten dute, irakaskuntza eta administrazioa gainditu eta sozio-ekonomiari eutsiko baitiote.

«Garai hauetan eta EAB-83 txostenak jasotzen zuena kontutan hartuz, berriro diogu, atzera egitea da EAB-93 txostenak proposatzen dituen lehentasunak finkatzea»

Jakina da J. Fishman-ek, jadanik ezaguna egin den bere «Belaunez-belauneko Ezlokatze Eskala Mailakatua»n seigarren urratsa hartzen duela oinarritzat, hau da, *etxegiroa auzo-inguru eta bizi esparru amankomunenak: ama-hizkuntzaren transmisioaren oinarria*.

**HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO SAIOAK: 8 URRATS
BELAUNEZ BELAUNeko EZLOKATZE MAILA
(Behetik gora irakurri)**

- 1.- Hezkuntza, lan eremu, komunikabide eta gobernu ekintzak mailarik gorenean
- 2.- Herri mailako zerbitzu publikoak, gobernu zerbitzuak eta komunikabideak
- 3.- Herri/eskualde mailako lan mundua (ez auzo girokoa)
- 4.- Irakaskuntza:
 - 4.b: 'X'dunentzat eskola publikoa, baina diseinua eta pertsonala 'Y'dunen kontrolpean
 - 4.a: 'X'dunen kontrolpeko eskolak

II. Diglosia gainditzeko hizkuntza biziberritzeko saioak, diglosia hori lortu ondoren

- 5.- Hizkuntzaren alfabetakuntzarako eskola, gazte eta zaharrentzat
- 6.- Etxegiroa, auzo-ingurua eta bizi esparru amankomunak (gertuko komunitatea): ama hizkuntzaren transmisioaren oinarria
- 7.- Elkarrekin kulturala 'X' hizkuntzaren bidez, pertsona zahar eta helduen parte hartzea azpimarratuz
- 8.- 'X' hizkuntzaren berreraikuntza

I. Diglosia lortzeko hizkuntza biziberritzeko saioak

«Etorkizunean elebitasuna ezezik, eleaniztasuna izango da nagusi. Ez gaitezzen, bada, gu geu elebitasunaren diskurtso zaharkituan galdu»

Eta zalantzarik gabe, EAB Fishmanen eskala honetan oinarritu da datozen urteetarako lehentasunak ezartzerakoan. Hala ere, uste dugu gauza bat dela 6. urrats horri bere erabateko garrantzia aitortu eta beste urrats guztietan egiten diren ahaleginak honekin lotzea berau segurtatzeko, eta beste bat bera beste guztien aurretiko lehentasun osoa izendatzea. Kontu hartu 6. urrats hori eskalaren lehenengo atalean dagoela, hau da, **diglosia lortzeko** urratsen artean. Eta ez dut uste diglosia lortzea denik gure helburua, **diglosia gainditzea** baizik.

Etorkizuneko inguru berrian

1. Hauxe dugu txostenaren azken atala, nahikoa laburra bera. Eta atal honetatik azken parrafoa nahi dugu hona ekarri, bertan ideia garrantzitsu bat azaltzen baita:

- «Gaurtik aurrera, Europaren eraikuntzan, Euskal Herriak, elebidun ezezik, **eleanitz** ere behar duela aurreikusten da: euskara bakarrik ez da aski izango, baina ezta gaztelania edo frantsesa soilik ere. Orain artean izan ez den hizkuntz politikarekin burutu beharko da geroko gizarte europarra»²⁵.

Etorkizunean elebitasuna ezezik, eleaniztasuna izango da nagusi. Ez gaitezzen, bada, gu geu elebitasunaren diskurtso zaharkituan galdu.

Ondorioak

«Txostenak hizkuntz politika instituzional bateratuaren eza eta hizkuntzarekiko politikan dagoen gatazka isladatzen ditu»

EABren 93ko Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpi-deak txostena irakurri ondoren, eta goian adierazitakoen bidetik, ondoriotzat azpimarratu nahi dugu:

1. EAB-93 txostena, hizkuntz politikaren ikuspuntu heritistik atzerapausu bat da. Batetik EABren 83ko txostenarekiko eta, zer esanik ez, CSLLCren 93ko txostenarekiko.

2. Txostenak hizkuntz politika instituzional bateratuaren eza eta hizkuntzarekiko politikan dagoen gatazka (instituzio-atalen artekoa zein instituzioetatik eta erakunde sozialekikoa) isladatzen ditu. Zentzu horretan, gure ustez egokiago litzateke ondorioak azaltzen badira, zioak ere garbi adieraztea; ondo da txostenari kutsu positiboa eman nahi izatea, ados gaude horrekin, baina esan beharrekoak gorde gabe.

3. Hala ere, Txostenak aurrerapausu haundia ematen du gatazka eta desartikulazioaren arazo horri dagokionez; nahiz

(25) Op.Cit. 30. orr. Beltzez dagoena gurea da.

eta gehiegi makurtzen den sektore politiko inobilistenak (hizkuntzari dagokionez beti ere) lasaitu nahian. Egia da hizkuntz politika koherente bat bideratzeko egungo egoera hau oztopo ia erebatekoa dela, ezinbestez gaintitu beharrekoa ezer egin ahal izateko. Xede horrekin egina da txostena, eta baditu horretan elementu onak.

4. Txostenaren mezua honetan laburbilduko genuke:

- Aurrerantzean hizkuntz politikarako molde berrituak.
- Hizkuntz politika **instituzionala** artikulatu eta HPINren gidaritzapean bideratu.

- Erakunde sozialen ezinbestekotasuna normalkuntza prozesuan.

- Erakunde sozial eta instituzionalen arteko gatazka konpondu.

5. Gure aldetik, erabat ados gaude honekin, eta aspaldidanik egin beharrekoa baldin bazen ere, ea berandu baino lehen bideratzeko gai garen.

6. Badago, hala ere beste gai bat txostenak aipatzen ez duena, baina gerora aztertu beharko dena: erakunde sozialen artikulazioa, instituzioekiko autonomia edota **menpekotasun eza** eta **dagokien protagonismoaren errespetua**.

7. Oinarri guzti hauek finkatzen baditugu, behingoz euskarak behar duen indarra eta liderazgo osoz Plangintzari eutsi eta aurrera egiteko gai izango gara.

8. Amaitu nahi genuke txostenean agertzen den esaldi batekin: «**lehen pausua erakundeek eman behar dute eta, beren hizkuntz politika ezbaian jartzeko bildurrik gabe, adostasuna bilatu**». Hala bedi!

«Txostenak aurrerapausu haundia ematen du gatazka eta desartikulazioaren arazo horri dagokionez»

«Badago, hala ere, beste gai bat txostenak aipatzen ez duena, baina gerora aztertu beharko dena: erakunde sozialen artikulazioa, instituzioekiko autonomia edota menpekotasun eza eta dagokien protagonismoaren errespetua»

J. Inazio Marko Juanikorena

EKBko Idazkari Nagusia
UEUko Soziolinguistika Sailburua

General Secretary of the Basque
Culture Assembly (EKB)
Head of the sociolinguistics dept. of the Basque
Summer University (UEU)